



Izenburua	Interneteko sare sozialak, sare sozialen analisi dinamikotik begiratuta
Egilea	Gorka Julio
Data	2010/04/21

aurkibidea

aurkibidea.....	2
1. Sare sozialak, teoria pixka bat.....	3
2. Gazteak eta sare sozialak.....	7
3. Gazteak eta Internet.....	8
Interfazea.....	8
Edukiak.....	9
Lekuak.....	9
4. Interneteko sare sozialak.....	10
Non daude?.....	10
Nola dago osatua beraien sarea?.....	10
Zer egiten dute?.....	11
Nola eragin?.....	12

1. Sare sozialak, teoria pixka bat

Sare sozialak orain, sare sozial birtualekin lotzen baditugu ere, pertsonak eta horien arteko erlazioek osatutako sareak dira. Sare sozialen azterketa ez da berria. Hasieran egituren analisi estatikoa nagusi bazen ere, orain sare sozial horietan gertatzen diren dinamikien azterketan oinarritutako analisia da nagusi. Analisi mota horrek egindako ibilbidea, gure jendartea hobeto ulertzeko tresna da. Garrantzitsuak dir gure jendartean sortzen diren dinamikak, sare sozial birtualetan gertatzen direnak ere ulertu ahal izateko. Horregatik atal honetan, oso baliagarria izango zaigu teoria pixka bat ezagutzeari, [David de Ugartek](#) horren gainean egindako [laburpen bat](#) eta testuetan aipatzen diren beste hainbat erreferentzia erabiliko ditut horretarako.

Sare sozialak, normalean, grafoen bidez adierazten dira. Nodoak pertsonak dira eta horien arteko harremanak, aldiz, ertzak. Era horretan pertsona multzo batek dituen harreman mota ezberdinak adieraz ditzakegu. XVIII. mendean Könisberg-en (Kaliningrado) [Eulerrek](#) gauza garrantzitsu bat erakutsi zion munduari. Könisberg-etik Pregel ibaia igarotzen da eta horrek irla antzeko batzuk sortzen zituen. Irla horiek zubien bidez lotzen ziren alde ezberdinetara. Herrian bazegoen joko antzeko bat, esaten zuena ezinezkoa zela zubi horiek igarotzea, baten batetik bi aldiz pasatu gabe. Hori frogatzeko Eulerrek grafo teoria erabili zuen, irlak nodo bezala jarriz eta zubiak harreman bezala markatuz.



Könisberg-eko zazpi zubiak eta Eulerren teorema ([Wikipedia](#))

Eulerrek hori ezinezkoa zela frogatu zuen. Azterketa horretatik [Eulerren teorema](#) dator. Ertzak behin bakarrik zeharkatzen dituen ibilbide bati **Eulerren ibilbidea** deritzen. **Eulerren ibilbidea** izateko, abiapuntuan eta helmugan izan ezik (bi erpinetan izan ezik, alegia), beste erpin guztietako mailak bikoitiak izan behar dute. Erpin berean hasi eta bukatzen bada, **Eulerren zirkuitua** dagoela esaten da. Kasu horietan erpin guztietako mailak (abiapuntua eta helmuga barne) bikoitiak dira.

Horren zentzu matematikoan gelditu gabe, garrantzitsuagoa da ikustea [Albert-Lászlo Barabási](#) irakasleak [Linked](#) liburuan adierazten duena.

Grafo edo sareek beraien egituraren barnean, gauzak egiteko aukerak edo mugak ezartzen dituzte.

Zer gertatuko den baino, zer gerta daitekeen adierazten digute. Egituraren atzean ere boterea dagoela, alegia. Beraz, edozein sare inoiz ez da neutrala izango, sorreratik bertatik.


Jendartea bera ere grafo handi bat bezala uler dezakegu. Stanley Milgram-ek famatua den Small world esperimentuan erakutsi zueez, oso mundu txikia da. Berak egindako esperimentuan, egin beharrekoa azaltzen zuten hainbat gutun bidali zituen AEBetan barna. Gutun horietan ausaz aukeratutako pertsona batzuek, ezagunak ez ziren beste urruneko pertsonari bidali behar zizkieten gutunak. Hartzailera ezagutzen ez bazuten (normalena) gutuna beraien ustetan errazen iritsiko zitzaion pertsonari bidali behar zioten. Horrela helmugara iritsi arte. Milgram-en atzetik esperimentu horren beste aldaera asko etorri dira. Matematikariek Paul Erdős-ekin beren lanek duten lotura zenbat graduetara dagoen aztertzen dute. Aktoreek aldiz Kevin Bacon-ekin dituztenak adibidez.

Esperimentua amaitzean konturatu ziren pertsona horien artean sei gradutako (edo pausotako) jauzia bakarrik zegoela. Hau da, 'mundu txikia izenez' ezagutzen diren sareen propietateak dituztela. Sare horiek, harreman zuzena izan gabe, oso jauzi gutxitan jende askorengana iristeko aukera ematen dute, normalean zubi lanak egiten dituzten nodoei esker.

Small world sarea ([Wikipedia](#))

Baina normalean jendartean, konturatzen bagara, gure lehen mailako kontaktuekin harrema izateko joera daukagu. Hau da, bi pertsona ezagutzen badituz, normalena da bi pertsona horiek ere beraien artean ezagutzeko aukera izatea. Orduan nola da posible fenomeno hori? Ba *cluster* horien artean loturak egiten dituzten pertsonari esker. Lotura gutxi badira ere, nahikoak dira sarea elkarrekin lotuta mantentzeko. Lotura horiek oraingo teknologiek -blogak, posta elektronikoak, Interneteko sare sozialak- erabiliz hori askoz errazago egitea lortu da. Lotura horiek normalean lotura arinak dira.


Baina, pentsa dezakezue nolabait lotura mota horiek ez dutela lagun edo familiarreko loturen indar bera. Mark Granovetter soziologoak The Strength of Weak Ties esperimentuan azaldu zuenez, lotura horiek garrantzia handia dute mezuak zabaltzeko garaian. Normalean, analisi estatiko batean kontuan hartzen ez diren lotura horiek dira mezua pasatzeko baliatzen direnak. Lana bilatzeko, adibidez, oso baliagarriak dira, mezua zure *cluster*-etik kanpo garraiatzen laguntzen baitute.



Lotura gogorrak eta arinak (Mark Granovetter)

Ondoren, [Malcolm Gladwellek](#), Granovetterrek epidemien zabalkundeari buruzko ikerketak eta lotura arinen teoriak hartu eta hedatzea lortu zuen. Pertsonen arteko sareetan hainbat pertsona mota sailkatu zituen, *Connectors*, *Mavens* eta *Salesmen*, [The tipping point](#) liburuan. *Connectors*, gure munduak mundu txiki baten ezaugarriak izan ditzan laguntzen duten pertsonak dira. Harremanak egiteko erraztasunak dituztenak eta hainbat *cluster*-etatik atzigarriak direnak. *Mavens*-ak aldiz, ezagutza handia metatzen duten pertsonak dira. Besteen arazoak konpontzen saiatzen direnak, propioak konponduz. Beren gaiari buruz duten ezagutzagatik eta jarrerengatik erreferentzialak izan ohi dira eta horiek dira gehienbat joera berriak sortzeko gaitasun handiena dutenak. Amaieran *Salesmen*-ak ere bereizten ditu. Bere izaeragatik beste hainbat pertsona beraiekin ados jartzeko gaitasuna erakusten duten pertsonak dira. Kategoria horiek ez dira zurrunik noski.

Era berean, sareetan epidemiak nola sortzen diren azaltzen saiatzen dira. Oso ohikoa da gehien kontaktaturiko pertsonak zerbait hedatzeko aukera gehiago dutela pentsatzea, baina lotura arinek erakutsi digute ez duela zertan horrela izan behar. Batzutan espero ez dugun zirrikitu batetik hasten dira gauzak eta *tipping point* –ean bukatzen dira, masa kritiko bat lortzen dutenean.



Connector, Maven, Salesman (Vox Pop Design)

Era horretako loturak, normalean, handitzen ari diren eta nodo bakoitza zeinekin lotu daitekeen erabakitzeko aukera duten sareetan sortzen dira. Hau da, WWW, Interneteko sare sozialak eta oro har sare asko horrelakoak dira. Normalean, probabilitate handiagoarekin, lotura gehien dituzten nodoekin lotzeko joera izaten dute. Barabasi-k *Linked* liburuan azaldu bezala, potentzia lege bat betetzen dute.

Tipping point horien sorrera ulertzeko beste zerbait ezagutu beharko dugu oraindik. [Duncan Watts](#) eta bere ondorengoek erakutsi zuten, sareetan pertsonak bata besteekin harremana izatean, harremanak itxiak edo irekiak izan daitezkeela. Hau da, adibidez, familiaretan gauza gehienetarako irekiak badaude, laneko pertsonen artean bakarrik gai konkretu batzuekiko egongo dira irekita. Ondoren, [Michael Chwe](#)-k informazio horri beste zerbait gaineratu zion. Momentu batzutan, testuinguruaren arabera, pertsonak lotura batzuk irekiz eta itxiz bere ingurunea aldatzeko joera izan dezake.

Hori dena ulertzeko, [Juan Urrutiak](#) matxinatze-atalasea ([umbral de rebeldía](#)) kontzeptua sortu zuen. Horrek adierazten du nire inguruan zenbatek aldatu behar duten bere izaera, nik nirea aldatu ahal izateko eta sozialki baztertua ez izateko. Horrek guztiak, azaltzen du, nola zenbait kasuetan aldaketa txiki batzuek, eragin global bat izan dezaketen. Nolabait aldaketa txiki batek, beste baten ingurunean eragiten du eta mezua pasatu edo ez erabakitzen du (harremanak ireki edo itxiz), atalase horren arabera. Kasu horietan elkar ezagutzea beharrezkoa da, besteen atalaseak ezagutzeko.

Fig. 1. Dos formas de red alternativas

Chwernen kontzeptuak azaltzeko bi sare mota ezberdin ([Historia del analisis de redes sociales](#))

Matxinatze-atalasea 3 izango balitz nodo guztietan, hau da, nire inguruko 2 nodok nire jarrera antzekoa hartuko balute, nik ere har nezake. Kasu horretan, lehenengo irudian ez litzateke "matxinada" piztuko, beraien ingurukoak ezagutzen badituzte ere, osotasunean beste 4.a ezagutzen ez dutelako eta, beraz, dudak daudelako zer gertatuko den. Aldiz kometan 1,2,3 nodoak beti "matxinatuko" dira egoera horretan, 4. nodoa, aldiz, inoiz.

Baina zer gertatzen da matxinatze-atalasea oso altua bada: 5, adibidez. Ez bat ez beste inoiz ez lirateke matxinatuko. Orduan ondorio berri baten aurrean gaude. Matxinatze-atalase baxuetan errazagoa da matxinada gertatzea, nodoek beraien artean harreman estuak badituzte. Baina matxinatze-atalase altuen aurrean nodoen arteko harremanak arinak badira, hobe. Harreman arin horiei esker, agian, nodo berriak erakarriko dira sarera. Nodo berri horiek testuingurua aldatu eta egoera aldatu dezaketelarik.

2. Gazteak eta sare sozialak

Hori aztertzeko bi talde osatuko ditut: batzuk 12-16 urte tartekoak eta, besteak, 16-18 urte tartekoak. Nerabeak1 eta Nerabeak2, hurrenez hurren, uste dudalako antzeko bi talde direla, baina ez gutziz berdinak. Batez ere, murgilduta dauden sareei begira. Momentu batzuetan antzekotasun handiak izango dituzte, baina beste batzuetan ñabardurak egitea garrantzitsua izango da.

Adin tartearak gainera ezin dira inoiz zurrunkak izan, beraz, hori ere kontuan hartu behar dugu. Gainera, neska eta mutilen arteko aldea nabaria da. Horren ondorioz, talde hauek egin nahi ditudan ñabardurak erakusteko erabiliko ditudan talde bezala hartu.

12 - 16	16 - 18	18 - ...
Sare aukeraketa: ez aukeratuak	Sare aukeraketa: aukera batzuk	Sare aukeraketa: aukera gehiago
Lotura gogorrek eragin handia	Lotura gogor berriak eta lotura arinak hainbat gaietara irekitzen	Lotura arinen eztanda eta horietako batzuekin lotura gogor berriak egituratzen

Nerabeak1

Adin tarte honetan hainbat saretan daude: eskola, familia, zenbait talde... Lotura gogorrek eragin handia dute adin tarte honetan. Lotura arinak ere izaten dira, baina sarea ez aukeratu izanik bultzatuta, lotura arinekin harremanak zabaltzeko aukera txikia izaten da.

Nerabeak2

Adin tarte honetan sare batzuk aukeratzeko aukera zabaltzen da. Interes taldeetan sartzeko aukerak ugaritzen dira: kirola, aisialdi taldeak... Horri esker ditugun zenbait lotura arin gai ezberdinetara irekitzen hasten dira eta beharbada lotura gogor berriak sortzen hasten dira.

Horrekin batera, orain arte bere sareak erabaki edo horietan gustuko jarrerak izan ez dituztenen aurkako jarrera ager daiteke. Familian, gurasoen aurkako jarrera, edota eskolan zenbait irakasleren kontrakoak, edota orain arte ikaskide izan direnen aurkakoak. Aurretik ere gerta daiteke, baina adin hauetan ohikoagoa da.

Koadrilaren figura agertzen da. Aurretik lagun sareak baziren ere, orain koadrila agertzen da, talde berezia. Zenbait gauzetarako sostengu handia da, lotura gogorak izaten dira barnean, baina zenbait gaietara itxita egoten da, kontsentsua ez dagoelako, edota interes orokorreko gaiak ez direlako. Horrek, zenbait pertsona lotura arin berriak sortuz sare berriak eraikitzen eramango ditu (koadrilatik kanpo). Fase hori hurrengo adin tartean indartzen da. Nolabait beste bi adin tarteen arteko zubia da. Hurrengo fasean, normalean, unibertsitatearekin batera lotura arin berriak sortzen dira eta horietako batzuk lotura gogorak izatera pasatuko dira.

3. Gazteak eta Internet

Baina, zer egiten dute gazteek Interneten, zein dira beraien interesak, zein da beraien jarrera, zein bide erabiltzen dituzte konektatzeko? Horretan datu asko falta bazaizkigu ere, zenbait gauza nahiko argiak dira. Hala ere, honetan [Imanol Epeldek](#) egindako txosten bat izan dut laguntza moduan. Txosten horretan 12-16 urteko Zarauzko Antoniano ikastetxeko ikasleei eta 16-18 urteko Ordiziako Jakintza ikastolako ikasleei egindako inkesta bana aipatzen ditu. Nolabait, ikusten ditudan joera nagusiekin eta bertako datuekin osatutako iritzia da, beraz. Atal honetan ez dut banaketa handirik egingo Nerabeak1 eta Nerabeak2 taldeen artean, nahiz eta zenbait momentutan argibide bereziak emango ditudan.

Interfazea

Diagnostikoa

Internetera konektatzeko, normalean, ordenagailua erabiltzen dute. Gero eta ohikoa da, gainera, ordenagailu hori eramangarria izatea, horrek dakarren guztiarekin. Mugikorrean Internet erabiltzeko aukera dute, baina oso gutxi erabiltzen dute. Gehienek garestia dela diote.

Aplikazioei dagokionez, normalean eskaintzen dizkieten tresnak erabiltzen dituzte eta eskaintzen dizkieten hizkuntzan. Erabiltzen dituzten aplikazioen hizkuntza ez zaie gehiegi axola. Nahiz eta batzuen artean euskaraz jartzeko gogoazaltzen den (Interneteko sare sozialen batzuk kasu). Hala ere, orokorrean berdin zaie hizkuntza, eta lehenetsita datorrena erabili ohi dute.

Proposamenak

Badirudi aukera lehenetsia onartzen dutela eta aukera horrek ez duela ondoren baldintzatzen beraien hizkuntza jarrera. Orokorrean beste sareetan ere erabiltzen duten hizkuntza erabiltzen dute. Hau da, beraien normalean egiten duten hizkuntza erabiltzen dute. Horrela bakarrik uler daiteke enpresa batzuek beraien interfazea beraien kabuz euskaratu izana, [Fotolog](#)-ek, adibidez. Baina normalean lehenetsitako aukera hori gaztelania izaten da. Interneten euskarazko aukerak egon daitezkeela pentsatzeko eragozpenak sortzen ditu horrek. Adibidez, aurrerago ikusiko ditugun datuek erakusten duten bezala, ezagutzen dituzten euskarazko guneak oso ezezagunak dira beraiarentzat.

Interfazea, hau da sistema eragilea eta, batez ere, nabigatzailea euskaraz jartzea proposatzen da, ahal den gune guztietan. Aukera onena, [Mozilla Firefox](#) nabigatzaile librea izan daiteke. Horrek lagunduko du, nolabait, pertsona hori euskarazko mundu horretan murgiltzen, eta bigarren helburu bat ere lortu dezake: ikusaraztea. Interneten euskaraz konfiguratuta dagoen nabigatzaile batekin ibiltzeak traza bat uzten du guneen estatistiketan. Traza horrek euskaraz nabigatzen duen komunitate bat badagoela ikustarazten laguntzen du.

Mugikorren gaiari helduz, nahiko argia da prezioak jaistearekin batera, eremu honetan ere, eztanda gertatuko dela. Beraiantzako lehen komunikazio tresna da mugikorra eta aukera hori eskaintzen duten gailuak badituzte. Interneteko sare sozialek kasu batzuetan SMSek egiten zuten lana betetzen ari dira esparru pertsonalean. Hori mugikorrera eramateko pausoa, beraz, ia berehalakoa izango da. Horregatik eremu honi begira jarri beharko dugu, hurrengo urteetan. Horrela adierazten dute [zenbait datuk](#) ere.

Edukiak

Diagnostikoa

Interesatzen zaizkien edukiak: umorea (zentzu zabalenean), misteriozko gaiak, jokoak, beraien adinekoak edo handiagokoek egindako telesailak. Nabarmentzekoa da bideoak daukan indarra eta bideoez gain, telebistako telesailak eta saioak Interneten ikusteko joera handia da, realityak, marrazki bizidunak, telesailak... jarraitzekoa batez ere.

Euskarazko edukiak ere bilatzen dituzte, baina gehienak ikastetxeetako lanarekin erlazionatuta daude.

Proposamenak

Euskaraz jada egindako edukiak ezagutarazi. Bideoa da erregea.

Beraien interesekin bat datozen edukiak sortu edo beraien sortzera bultzatu: lehiaketak, erakusketa publikoak...

“Euskara ikastetxerako da” estigmarekin amaitu. Aisia ardatza duten edukiak sortu, bertan baloreak txerta daitezke, baina aisiak izan behar du nagusi.

Jokoak eta, batez ere, sarearen bidez jolasteko guneek aukera handiak esakintzen dituzte. Hala nola, sare sozialen barnean garatu daitezkeen joko sozialak ([Farmville](#) adibide bat izan daiteke).

Lekuak

Diagnostikoa

Bideoak ikusteko [YouTube](#) edo telebista kateetako webguneak erabiltzen dituzte, baita [Seriesyonkis.com](#) bezalako webguneak ere. Fotolog eta [MySpace](#) bezalako tresnek garrantzia galtzen ari dira. Izan ere, Interneteko sare sozialengatik ordezkatuak izaten ari dira.

Beste erreferente bat [Euskadi Gaztearen](#) orria da. Horrekin batera Euskadi Gazteak gomendatutako musikaren inguruan bideoklipak eta horri loturiko informazio asko kontsumitzen dute.

Interneteko sare sozialetako erabileran aldeak badaude. Gazteenek [Messengerra](#) dute tresna nagusizat, nahiz eta [Tuenti](#) bezalako sare sozialetan ere sartzen hasi. Zaharragoek Tuenti erabiltzen dute asko eta batzuk jada [Facebook](#) erabiltzen hasten dira. Facebook etorriko den fase berrirako atea bezala da batzuentzat.

Euskarazko edukiak, orokorrean, ikastetxeko lanekin harremana dutenez, hiztegiak, [Wikipedia](#), informazio webguneak eta itzultzaileak nabarmentzen dituzte. Kasu partikular moduan eta handien artean blogak ere aipatzen dituzte, baina horiek ere ikastetxeko lanekin lotuta daudelako. Orokorrean blogak arrotzak zaizkie, nahiz eta tresna batzuk blogak direla jakin gabe erabiltzen dituzten.

Beraiei zuzendutako webgune euskaldunak ez dituzte gehiegi ezagutzen. Ezagutzen dituztenetako batzuk interesgarriak iruditzen zaizkie, [Gaztezulo](#) kasu.

Proposamenak

Beraien interesekin bat egiten duten euskarazko guneak ezagutu, eta ez badaude sortu. Beti ere aipatu diren parametroetatik.

Beraiek ibiltzen diren gunek horiek ezagutu, ulertu eta estrategia egokiak garatu. Kontuan hartu leku batzuetan zuen presentzia lortu nahi duzunaren aurkakoa izan daitekeela. Hiru bereziki hurrengo puntuan jorratuko dut, Interneteko sare sozialen aparteko atalean.

4. Interneteko sare sozialak

Orain arte ikusi ditugun teoria eta kontzeptuak baliatuz, Interneteko sare sozialetan gazte edo nerabe horiek zer egiten duten eta horiengan eragiteko aukera posibleak aztertuko ditugu. Ez dago soluzio bakarra eta dudak ere asko dira. Ondo ateratzeko probabilitatea, dinamika horiek aurrera eramango dituzten pertsonen esku egongo da.

Hemen Interneteko sare sozialetara mugatuko bagara ere, hemen botako ditugun zenbait proposamen, Interneteko beste hainbat gunetarako ere baliagarriak izan daitezke.

Atal hau egiteko esperientzia propioez gain, zenbait [ikerketak eta datu](#) eta [Maite Goñi](#)-k bere ikasleei egindako galdeketa eta berarekin izandako eztabaidak oso lagungarri izan zaizkit. Datu horien guztien kontrastea da ondoko emaitza.

Non daude?

Gazte horiek Interneteko sare sozialei dagokionez, batez ere, Windows Live Messenger-en daude. Hori Interneteko sare sozial bezala uler badaiteke ere, ez da hala. Bertan, batez ere, zuzeneko harremanak mantentzen dituzte. Hori da gazteen artean, batez ere beren lagun artean, kanal nagusia.

Interneteko "benetako" sare sozialetan, gehienak Tuentin daude. Adin txikikoetan, 12 urtetik gora, Tuentiren erabilera orokortzen hasten da. Aurretik ere sare horietan sartzeari erronka izaten da batzuentzat. 16 urtetik aurrera Facebook-era salto egiten ere hasten dira batzuk. Lehenengo fasean, normalean, bi sareak mantentzen dituzte, lehen aipatutako Messengerrarekin batera.

Horren ondorioz hiru sare horietan oinarrituko da ondorengo ere. Messenger Interneteko sare sozial bezala ulertzen ditugunetik pixka bat alboratzen bada ere, interesgarria da kontuan hartzea.

Nola dago osatua beraien sarea?

Hemen bi sare bereizi behar ditugu. Alde batean, gehienbat, komunikazio sinkronorako erabiltzen den Messenger dago. Bestean, Interneteko benetako sareak. Lehenengoan, normalean, lotura gogorretako pertsonak izaten dituzte. Gainera hauek pareak izan ohi dira. Hau da, bere adin tarteetako pertsonak, oro har.

Aldiz, Interneteko sare sozialetan lotura gogorrak bai, baina lotura arin asko ere izaten dituzte. Hau da, beste talde, lagun lagunak, etab. Harremanak noizean behin izaten dituzten pertsona asko ere bai. Interes edo ekintza bateraturen batean bat egiten dutelako edota elkarren arteko zubia egin duen pertsona bat ezagutzen dutelako. Hau da, sare horiek kontaktu arinak hobeto kudeatzeko tresna bihurtzen dira gehienbat.

Messengerra eremu pribatuago bat bezala ikusten dute. Interneteko sare sozialak aldiz, alde batetik asinkoronoak direlako (mezuak nahi denean jaso daitezke) eta, bestetik, zenbait eremu publiko egin daitezkeelako (argazkiak, bideoak,... partekatu), publikoagotzat jotzen dituzte. Hau da, zenbait gauza erakusteko nahiak bultzatuta egiten dute. Orain arte Messengerrak elkar trukutzen bazituzten, orain gehiago Tuenti edo Facebook profilak partekatzen dituzte.

Sarearen egiturara bueltatuz eta egindako Nerabeak1 eta Nerabiak2 azpitaldeak kontuan hartuz, zenbait gauza ikus daitezke:

Nerabeak1

Fase honetan lotura gehienak gogorak dira. Lotura arin batzuk ere badaude ezagutzen dituzten taldeekin, baina ez dute interes talderik sortzen. Hori bai, ezagun horiek guztiak hobeto kudeatzen ikasten dute.

Nerabeak2

Fase honetan aldiz, lotura gogorak mantentzen dituzte, koadrila batez ere ondo markatuta egongo da sarean ere. Baina, aldi berean, lotura arinak ere kudeatzen ikasteaz gain, zenbait kasutan interes taldeak ere osatzen hasiko dira. Horietako batzuekin lotura gogor berriak sortuko dituzte.

Edozein kasutan erakusten duten sare egitura, ezagunek edo 2. mailako ezagunek (ezagunen-ezagunek) osatzen dute gehienbat. Jende berria ezagutzeko aukera badago ere, oro har ez da horrela izaten. Sareen funtzionamendua ulertzen doazen heinean aukera horiek zabaltzen joango dira, baina esango nuke aurrerago ere orokorrean ez dela jende berri gehiegi ezagutzen sare horietatik. Interes berdinak izan ditzakezun lotura arin horiekin kontaktuan jarraitzea lortzen da. Horietako zenbait lotura gogor bihurtu daitezke.

Era xeheago batean esanda, lehenagoko faseetan gertatzen ziren zenbait joera, lehenago eman daitezke orain Interneten. Unibertsitate garaian jende berria ezagutzeko aukera zenuen, interes berdinak partekatzeko aukera zenuen, pertsonak aurkitu, parte hartzen zenuen taldeak aukeratu eta orokorrean, fisikoki ere gehiago mugitzeko aukera zenuen. Orain, 16-18 urteko adin tartean hori egiten has daitezke, Interneteko sare sozial horiek erabiliz. Aldiz, koadrila osatu eta koadrilarekin plan propioak egiteko aukera, herrien artean autobusez mugitzeko aukera, jai ezberdinetara joan eta bertan jende berria ezagutzeko aukera horiek, orain 12-16 urte artean eman daitezke.

Zer egiten dute?

Azken datuen arabera denbora egunean denbora gehien sare sozialetan pasatzen dute. Gehienbat elkarren artean informatuta mantentzeko erabiltzen dituzte. Hiperkomunikatuta egoten dira. Beraien artean argazkiak, bideoak, etab. elkar trukutzen dituzte. Beraien bizitzaren alderdi batzuk partekatzen dituzte euren harreman sarearekin. Orokorrean ondo pasatzeko ere erabiltzen dituzte. Aisialdiaren atal garrantzitsu bihurtu dira.

Kontaktuak mantendu ahal izateko ere erabiltzen dute. Noizbait ezagutu duten pertsona hori, baina kontaktua galdu dutena fisikoki... Adibide garbi bat udaran egindako lagunak izan daitezke.

Etxeko lanak egiteko ere informazioa elkar trukutzen dute. Trukatzen duten informazioaren baitan eta asia/ludikotasuna nagusi bada ere, apunteak, erantzunak, informazioak... etab. ere elkartrukutzen dituzte batzuetan.

Batzuei arraroa irudituko zaie, baina sare horietan ez dituzte pertsona berri asko ezagutzen. Jada ikusi dugu nola orokorrean gazte horien Interneteko sare sozialak, jendartean ibiltzen diren taldeetako pertsonen osatuta dauden gehienbat. Ezagunei edo erdi ezagun horiei buruzko informazioa ezagutzeko ere erabili ditzakete. Adibidez, gustatzen zaien mutil/neska horri buruzko informazioa eskuratzeko.

Pribatutasunaren aldetik, sareak erabili ahala kontzientzia gehiago hartzen dute. Baian, hasieran eta askotan ondoren ere, balio lehenetsiekin konformatzen dira. Balio lehenetsiak ez dituzte eurek erabakitzen, erabiltzen duten tresnaren arabera izaten dira. Pribatutasuna eskubide bat da, eta eskubide hori gauzatzeko aukera badute ere, askotan ezjakintasuna eta utzikeriagatik ez dute aukera baliatzen. Hala ere, kontuan hartu behar dugu kasu askotan beraiek informazio asko zabaltzea erabakitzen dutela beraien kabuz. Pribatutasuna eskubidea den heinean, hori egiteko eskubidea ere badute eta gainera, askotan, nahi dute. Sare sozialak erabiltzen hasten direnean horren inguruko informazioa eta formazioa jasotzea ez legoke soberan. Hala ere, praktikaren bidez ederki asko ikasiko dute eta kasu askotan ez diegu ezer irakatsi beharko. Tresnak erabiltzen dituztenean beraiek ondo dakite zer eta zeinekin partekatu nahi duten.

Entzuten diren gauza beldurgarri gehienak beraz [1] [2], ez dute zentzu handiegirik. Salbuespenak orokortzen saiatzen dira. Eta ,era berean, enpresa pribatu handi gutxi batzuen eskuetan informazio hori guztia jartzea inor gutxiri inporta zaio. Horren ondorioak ere bakoitzak neurtu beharrekoak badira ere, etorkizunari begira garrantzitsuak izan daitezke.

Nola eragin?

Beraiei informazioa helarazi edo beraiengan eragin nahi badugu, lehenengo gauza erabiltzen dituzten tresnak ezagutzea da. Horretarako, beraiek erabiltzen dituzten tresnak edo antzekoak erabiltzera ohituta egon beharko dugu. Horiei lotuta dauden jarrerak eta horiek erabiltzeko berezitasunak ere ezagutu beharko ditugu. Pauso hau eman gabe ezingo dugu ia ezer egin.

Lehenengo pausoa eman dugunean, hainbat aukera izango ditugu, lortu nahi dugunaren arabera.

Informazio kanal bat ireki

Informazio kanal bat ireki ahal izateko ez da gauza handiegirik egin behar. Interneteko sare sozial horietan kontu bat sortu eta hori ezagutarazi. Zure helburu diren gazteei sortu duzula aipatu eta nahi badute izena emateko aukera eman. Era berean, erabiltzen dituzten webgune, blog edo beste kanaletan, sortzen duten informazioa sare horietara erraz eramateko aukera ematen duten tresnak erabili behar dira. Zuzenean informazioa bertara bidaltzen dutenak, edota nahi duenak ahla egin ahal izango duela ziurtatzen duten tresnak baliatu behar dira.

Helburua argia da, egiten ditugun ekimenen informazioa hainbeste denbora pasatzen duten leku natural batean ezagutarazi. Orain arte beste komunikazio bideak erabili ditugun bezala, informazio kanal moduan, alegia.

Bidalitako informazioaren *feedback*-a jasotzeko aukera ere egon daiteke, edota zenbait iritzi jasotzeko aukera. Baina hori, seguraski, kasuaren arabera izango da.

Eragin eta eztabaidatu

Talde konkretu batean eragin nahi izanez gero, garrantzitsua izango da talde horren dinamika ulertzea. Informazioa helarazi nahi badiozu, aurreko aukerarekin nahikoa izango zenuke, baina horrelako ekimenek jende berezia behar dute. Beraien sarean onartua behar zaituzte, hau da *Maven* bat izan behar duzu. Talde horrek zu aukeratu behar zaitu eta ez alderantziz. Horregatik pertsona horiek ezin dira edozein izan. *Salesman* moduan aritzea ez da egokiena, batez ere 16-18 urteko gazteen artean aurkako jarrera sor dezakezu.

Oso kasu gutxitan gertatzen bada ere, batzuetan gaztetatik gertu dauden zenbait pertsona eredu (*Maven*) bilakatzen dira. Gazteen artean beraiek erabakitzen dituzte zein diren pertsona horiek, baina batzuetan gazte horiekin kontaktu asko duten pertsona nagusi batzuek ere lortzen dute: aisialdi taldeetako zenbait pertsonak, irakasle batzuk (oso-oso gutxi), kirol taldeetako zenbait kide... Pertsona horien bidez saia gaitezke beraiekin harremanetan jartzen.

Aldaketa txikiak aldaketa globalak izan daitezke

Sare analisi dinamikoari esker badakigu sare horiek *scale-free* moduko sareak direla eta partaideek beren harremanak itxiz eta irekiz aldaketak sor ditzaketela. Sare horietan lotura arin asko daude, ikusi dugun bezala, eta horrek mezuak hedatzea errazten du. Era berean, ikusi dugu aldaketa txikiei esker eta testuinguruaren arabera, aldaketa txiki horiek beste batzuegan eragina izan eta eraldaketa globalak ekar ditzaketela, *tipping point* batean amaitu arte. Hori izango da helburua, beraz. Kanpaina bat abiatu, baina kanpaina horren garraiatzaile ez dugu guk izan behar, sare horietako partaideak baizik. Mezua bota dezakegu, baina beraiek erabakiko dute mezu hori garraiatu edo ez. Normalean kanpaina horietan kontrola galtzen da, helburua kontrola bera galtzea dela ere esan daiteke.

Kanpaina horiek zabaltzea lortzeko, beraiei interesatzen zaizkien gaiak eta edukiak izan behar dute. Mezuak argia eta itsaskorra izan behar du eta besteei pasatzera gonbidatzen duten elementuak izan beharko ditu. Hori lortu ahal izateko interesgarriak dira, adibidez, Interneteko sare sozial horietan mezuak garraiatzea proposatzen duten lehiaketak.

Horrelako kanpaina bat egiterako garaian, testuinguru ezagututa edo ezagutu gabe egin dezakegu. Noski, sare horietako pertsonak beraien artean dituzten harremanak ezagututa erreferenteak eta konektoreak zein diren jakinda, mezua errazago zabaltzen saia gaitezke. Baina hori baino garrantzitsuagoa da sarearen dentsitatearen eta matxinatze-atalasearen berri jakitea. Testuinguru hori guztia ezagutzea zaila da, baina horren gaineko balorazioak egin ditzakegu.

Matxinatze-atalase baxuetarako

Era honetako egoerak aurreikusten baditugu, berez gure mezua garraiatuko duten pertsonak egongo dira, mezua interesgarria delako edo pertsona horiek prest daudelako hori egiteko. Era horretako egoeretan, sarea gehiago trinkotzen saia gaitezke. Batak bestea ezagututa errazago sortuko zabalduko dituzte mezuak.

Hori egin ahal izateko Interneteko sare sozialetan ezagunen artean elkarren arteko ezagutza handiagoa bilatzen duten ekimenak bultzatzea daiteke. Baina hau lortzeko ikusi dugu alde fisikoak garrantzia handia duela. Horren ondorioz, harremana duten pertsonen arteko dinamikak bultzatzea daiteke, sare horiek trinkotzeko nahiarekin.

Euskara erabiltzeko joera hartzen badugu, adibidez, egoera euskara erabiltzeko joera duten gazteen artean dela pentsatzen ari gara kasu honetan. Gazte horien arteko ezagutza maila handituz, euskaraz hitz egiten dutenen arteko sarea trinkotuz... euskaraz dakitenek eta egin dezaketenek euskaraz egitera jo dezakete, bere ingurunean ezagutzen dituzten horiek euskaraz hitz egiten dutela ikusten baitute.

Matxinatze-atalase altuetarako

Egoera hau aurreikusten badugu, aldiz, gure mezua garraiatuko duten pertsonak gutxi direla pentsatzen dugu. Mezua zabaltzeko prest egon daitezkeenak ez dute mezua hori garraiatuko, beraien testuinguruak egitea espero ez dutelako. Horren ondorioz mezua zabaltzeko prest dauden horiek, beraien antzeko interesak dituztenekin elkar lotzen saia gaitzke. Horrela pertsona horien sarearen testuinguru aldatuko da eta momentu batean mezua garraiatzea erabaki dezakete, testuinguru egokiagoa baitzaie.

Interneteko sare sozialetan, interes antzekoak dituzten pertsonak elkar lotzen saia gaitzke, ezagutzen ez direnen artean elkar ezagutzeko aukera ematen duten ekimenak burutuz.

Berriro euskara erabiltzeko joera hartuta, gazte horiek euskaraz jarduteko arazoak izaten dituzte, beraien testuinguru egokia ez delako. Ezagutzen ez ziren eta euskaraz hitz egin nahi dutenen arteko pertsonak elkar lotzen baditugu, beharbada, euskaraz hitz egiten has daitezke. Horren ondorioz bere ingurukoak ere hori ikustean jarrera aldatu eta berdina egiten has daitezke.

Gazteak ahaldundu

Baina gauza horiek guztiak baino garrantzitsuagoa da gazteak ahalduntzea. Ahalduntzea, kolektibo bati boterea ematea da, ondoren, autogestioaren bitartez, kolektiboak berak bere egoera hobetu dezan.

Aurreko ataletan ikusi dugu nola Interneteko sare sozialek lotura arinak sortu eta kudeatzeko tresnak diren. Era berean, sare mota horien komunikatzeko ahalmena oso handia dela ikusiko dugu. Horren ondorioz, eta nahiz eta bere aurrean tresnak eduki, botere mediatiko, ekonomiko eta moda askoren garraiatzaile hutsak izan daitezke. Tresna horiek euren alde baliatzen jakin behar dute eta beste batzuetan beraien tresna propioak garatu. Beren diskurtso propioa, beren etorkizun propioa, bere botere propioa garatu dezaketela argi utzi behar diegu.

Sare hauean, Interneten orokorrean eta baita kalean ere, gauza berriak sortzeko gauza direla jakinaraztea beharrezkoa da. Hori egiteko baliabideak beharko dituzte batzuetan, eta baita testuinguru egokia. Inposatutako eta kontrolatutako testuinguruak ez dute asko laguntzen. Ez da arraroa izaten herrietako gatzetxeak, adibidez, sortzaile gune handienak izatea. Dinamika horiek bultzatzea oso garrantzitsua da; edo behintzat, ez oztopatzea.

Interneten ere, gauza berriak sortzeko aukera dutela argi utzi behar zaie, horretarako software librea bezalako tresnak ezagutaraziz. Masak dauden tokietatik kanpo bakoitzak bere errealitatera egokitutako tresnak sor ditzake, beraien ingurunean balio handikoak izan daitezkeenak. Gutxi izan daitezke hori egitera animatzen direnak, baina asko, gutxi batzuen lana balioztatu eta erabiltzen has daitezke.

Interneteko esparruan egiten dituzten proiektuak ere, mundu fisikoan antolatzeko era berriak ekar ditzakete, eta alderantziz. Esperimentatzeko aukerak eman behar zaizkie, gauza berri eta interesgarriak sortzea nahi badugu.

Udaltop lan-topaketa batzuk izan nahi dute. Helburu hori lortzen laguntzeko, ponentziak eskura jarri dira topaketak egin aurretik, nahikoa denbora izan dezan teknikari bakoitzak irakurtzeko, lantzeko eta hizlariari egingo lizkiokeen galderak prestatzeko. Jardunaldietan bertan, jadanik irakurriak egongo diren hitzaldiei adina tarte eman nahi zaie elkarrizketarako eta hausnarketarako tarteei.

Idatzi hemen zure galdera (ez ahaztu web gunetik bideratu behar duzula).

Galdera:

Azalpena:



Arteta kalea, 1- 7 C · 20140 Andoain (Gipuzkoa)

T_ (+34) 669 24 95 84

gorka@teketen.com · <http://teketen.com>